

EKAINA 22EB1

B1. Idatzi ekuazio kimikoaren adibide bat transformazio hauetako bakoitzerako, eta formulatu eta izendatu erreaktibo eta produktu guztiak:

- a) 3 karbono atomoko alkeno bati HCl-a gehitzea. *(0,50)*
- b) 4 karbono atomoko alkohol primario baten oxidazio apala. *(0,50)*
- c) 2 karbono atomoko azido karboxiliko baten eta 3 karbono atomoko alkohol baten kondentsazioa. *(0,50)*
- d) 6 karbono atomoko hidrokarburo aromatiko baten eta HNO₃-aren arteko erreakzioa. *(0,50)*

UZTAILA 22UC4

C4. Marraztu konposatu pare hauen formula erdigaratuak, eta esan zer motatako isomeria duen bikote bakoitzak:

- a) Azido propanoikoa eta metil azetatoa. *(0,50)*
- b) Metil propanoatoa eta etil azetatoa. *(0,50)*
- c) 2,2-Dimetilhexanoa eta 3-etil-2-metilpentanoa. *(0,50)*